

## MUgi Hadi eta Afrik Hope-n arteko kolaborazioaren lehenengo fasea amaitutzat ematen da.

2013/05/24

2022/2012 kurtsoan MUgi Hadik Afrik Hope gobernuz kanpoko erakundearekin kolaborazioan Bidasoa aldean material jasotze kanpaina bat antolatu zuen. Sukalderako eta josteko materiala, ordenagailuak, testu liburuak eta Doualako(Kamerun) ume, gizon eta emakumeentzat arroparen bidalketa egin zen.

Jasotze kanpainan Mondragon Unibertsitatea, Irungo Bizilagunen Elkarteak(Anzaran, San Miguel, Anaka, Ventas eta Dunboa), La Bacaladera, FREMAP, Ediciones Saldaña S.A. eta Ikastola Ekintzak hartu zuten parte.

Materiala 2012ko azaroan heldu zen Doualara eta herrien beharren arabera banatzen joan da. Materialaren zati bat umezurtz-etxeetan banatu da eta bestea banatzen joango dira beharreen diren tokietan. Adibidez Doualako 5 institutu identifikatu dira eta hiru ikastetxe Balessing alderdian. Umeen arropa eta jostailuak Balessing herriko 11 ikasteetxetan banatu dira.

Mondragon Unibertsitateak luzatutako material informatikoa pixkanaka banatzen ari dira beharreen dauden ikastetxeetan. Orain formakuntza fasean daude bertako irakasleekin geroago material informatiko hori hobeto erabii ahal izateko.

Maiatzaren hasieran 939 liburu bidali ziren Doualako Unibertsitatera, gaztelaniaren irakaskuntza bultzatzeko. GKEaren hitzetan inoiz ez dute horrelakorik jaso eta oso gustora daude.

2012/2013 ikasturtean MUgi Hadi Afrik Hopekin lanean dihardu. Aurrera eraman nahi den ekintzetako bat udan bolondresak bidaltzea da proiektu ezberdinetan laguntzeko. Berriro ere eskertu nahiko genuke enpresa, erakunde, ikastola eta hainbat pertsonen parte-hartzea.

Informazio gehiagorako: [mugihadi.bidasoa@gmail.com](mailto:mugihadi.bidasoa@gmail.com)

Argazki gehiago: [página de facebook MUgi Hadi](#)

